



PRIBATASUN-POLITIKA ETA TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA

Aurkibidea

1. Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa **Error! Marcador no definido.**

- 1.1 Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?3
- 1.2 Nor da Datuen Babesaren Ordezkarria?3
- 1.3 Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematean?3
 - 1.3.1 Irispen-eskubidea **Error! Marcador no definido.**
 - 1.3.2 Zuzentzeko eskubidea **Error! Marcador no definido.**
 - 1.3.3 Ezerezteko eskubidea **Error! Marcador no definido.**
 - 1.3.4 Tratamendua mugatzeko eskubidea **Error! Marcador no definido.**
 - 1.3.5 Aurka egiteko eskubidea **Error! Marcador no definido.**
- 1.4 Zein kasutan jakinaraziko ditugu zure datuak?5
- 1.5 Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?5

2. Tratamendu-jardueren erregistroa **Error! Marcador no definido.**

- 2.1 Eskaeren erantzuna eta kudeaketa6
- 2.2 BOEk ematea8
- 2.3 BOEk eraikitze eta eraikitze sustapena10
- 2.4 Kontabilitate-, ekonomia- eta zerga-kudeaketa12
- 2.5 Giza baliabideak14
- 2.6 Aholkularitza juridikoa eta erreklamazioen aurreko defentsa16

1. Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

1.1 Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Aurkakoa esaten ez den bitartean, zure datuen tratamenduaren arduraduna Azpeitia Berritzen SA erakundea izango da. **Hemen** aurkitu ahal izango duzu erakundeak egiten dituen jardueri buruzko eta erakundeari buruzko informazio gehigarria **(txertatu esteka)**.

Gurekin harremanetan jarri ahal izango zara bai aurrez aurre bai telefono, email edo gutunen bidez.

Gure posta helbidea hurrengo da:

Plaza Nagusia 5
P.K.: 20730
Azpeitia (Gipuzkoa)

Telefono zerbitzua herritarren esku: 943 15 71 83

Posta elektronikoa: azpeitiaberritzen@azpeitia.eus

1.2 Nor da Datuen Babesaren Ordezkaria?

Datuen Babesaren Ordezkariekin harremanetan jarri nahi bazara; azpeitiaberritzen@azpeitia.eus helbide elektronikora zuzenduriko email bidez, zein gure posta helbidera idatziriko gutun baten bidez, burutzeko aukera izango duzu.

1.3 Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematean?

Datuak babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko Lege Organikoak (DPBEDBL) interesdun orori dagozkion datu pertsonalei buruzko jarraian azalduko diren eskubideak ematen dizkiote.

Eskubide hauen aplikazioa, kasu bakoitzean tratamendu bakoitzak zilegitzen duen oinarri juridikoaren menpe egongo da, bere egikaritzea doakoa izanik.

Zure eskubideak egikaritu ahal dituzu Azpeitia Berritzen SArekin harremanetan jarritz idatzizko komunikazioaren bidez, NAN-aren fotokopiarekin edo antzeko identifikazio agiriaren fotokopiarekin, hurrengo helbidean:

Plaza Nagusia 5
P.K.: 20730
Azpeitia (Gipuzkoa)

Behin eskubide hauek egikaritzeko eskabidea jasota, ebazpen bat ematera ekingo diogu. Ebazpen horrekin ados ez bazaude, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) aurrean erreklamazio bat aurkeztu ahal duzu www.aepd.es.

Hemen aurkitu ahal duzu eskubide hauei buruzko informazio gehigarria (txertatu esteka).

1.3.1 Sarrera-eskubidea

Eskubide honek zure datu pertsonalen tratamendurik egiten dugun informatuta egoteko eskubidea ematen dizu eta, hala bada, datu horiek ikusteko eskubidea ematen dizu. Eskubide hau baliatzeko eskaerak banan-banan aztertuko dira, kasu batzuetan ezin baita eskubide hau baliatu.

Hemen deskargatu ahal duzu eskubide hau baliatzeko imprimakia (txertatu esteka).

1.3.2 Zuzentzeko eskubidea

Eskubide honek tratatzen ditugun eta okerrak diren datu pertsonalak zuzentzea eskatzeko eskubidea ematen dizu. Eskubidea ere izango duzu zuri buruz dauden datu personal osagabeak osatu daitezen.

Hemen deskargatu ahal duzu eskubide hau baliatzeko imprimakia (txertatu esteka).

1.3.3 Ezabatzeko eskubidea

Eskubidea duzu, DBEOren 17. artikuluan jasotako baldintzaren bat gertatzen denean, zure datu pertsonalak ezabatzea eskatzeko eskubidea duzu.

Hemen deskargatu ahal duzu eskubide hau baliatzeko imprimakia (txertatu esteka).

1.3.4 Tratamendua mugatzeko eskubidea

Eskubide honek DBEOren 18. artikuluan jasotako baldintzaren bat gertatzen denean tratamendua mugatzea eskatzeko eskubidea ematen dizu.

Hemen deskargatu ahal duzu eskubide hau baliatzeko imprimakia (txertatu esteka).

1.3.5 Aurka egiteko eskubidea

Zure datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea duzu, tratamendu hori interes publikoaren izenean egindako misio batean edo interes legítimoan oinarrituta badago, profilen elaborazioa barne.

Hemen deskargatu ahal duzu eskubide hau baliatzeko imprimakia (txertatu esteka).

1.4 Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Inola ere ez dizkiegu datuak hirugarrenei komunikatu ez lagatuko, aldez aurretik pertsona interesdunari jakinarazi eta behar den zilegitasuna izan gabe.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu eta horretarako datu pertsonak ezagutzeko sarbidea behar izango dute. Enpresa horiekin sinatu ditugu tratamenduaren eragile kontratuak, DBEOaren eta DPBEDBLaren xedapenak betetzen dituztenak. Kontratu horien bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik erabiltzen dituzten datuak tratatzen dituztela, baimendurik ez dituzten helburuetarako inoiz erabiltzen ez dituztela, eta datu horiek ez dizkietela hirugarren enpresa eta/edo administrazioei komunikatuko adostasuna eskatu gabe. Gainera, datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatuko duten segurtasun-neurriak ezarketa eskatzen diegu. Era berean, indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenak betetzen dituztela bermatzen diguten enpresa eta erakundeekin soilik kontratatzen dugu.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, egoera jakin batzuetan, hainbat administrazio publikori datuak lagatzeko legezko betebeharra dugu, lege horiek esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

1.5 Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. Eranskinean (segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin (3/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoen esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena).

1. Tratamendu-jardueren erregistroa

Ondorengo lerroetan Azpeitia Berritzen SAren Tratamendu Jardueren Erregistroa aurkituko duzu, baita erakundeak egiten duen datu pertsonalen tratamendu bakoitzaren informazio zehatza ere.

2.1 Eskaeren erantzuna eta kudeaketa

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Azpeitiako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren (BOE) esleipen-prozedurei, betekizunei, sustapenei eta abarri buruzko kontsultei erantzuteko eta eskatutako informazioa emateko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA zure datuak tratatzera legitimatzen duen lege-oinarria zure eskaerei edo kontsultei erantzuteko interes legítimo da.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Bestelako datuak: eskatzaileek bildu eta/edo emandakoak.

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako hauek dira:

- Eskatzaileak eta/edo horien legezko ordezkariak.

Zein hartzaileri komunikatu zaizkio zure datuak?

Ez da datu komunikaziorik aurreikusten.

2.2 BOEk ematea

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak esleitutako babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) entrega izapidetzeko eta kudeatzeko, bai eta horiekin lotutako ondorengo hainbat eskaera eta kudeaketa egiteko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA legitimatzen duen lege-oinarria kontratu edo aurrekontratu bat gauzatzeko premian babestuta dago.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzak eta Azpeitiako Udalak emandakoak dira.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Ezaugarri sozialei buruzko datuak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta/edo aseguruiei buruzkoak.
- Transakzioei buruzko datuak.
- Datuen kategoria bereziak; osasun-datuak (minusbaliotasun-maila).

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako

hauek dira:

- Eskatzaileak eta/edo horien legezko ordezkariak.
- Esleipendunak eta/edo haien legezko ordezkariak.

Zein hartzaileri komunikatuko zaizkio zure datuak?

Ez da datu komunikaziorik aurreikusten.

2.3 BOEk eraikitze eta eraikitze sustapena

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Azpeitiako udalerrian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze, birmoldatzeko eta eraikitze sustapena izapidetzeko eta kudeatzeko, baita lizitazio eta lehiaketa administratiboen ondoriozko lizitazioak burutzeko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA legitimatzen duen lege-oinarria kontratu edo aurrekontratu bat gauzatzeko premian babestuta dago.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Datu akademikoak eta profesionalak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.
- Transakzioei buruzko datuak.

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako hauek dira:

- Kontratutako eta/edo azpikontratutako enpresetako langileak.

- Kontratatutako eta/edo azpikontratatutako enpresen ordezkariak.

Zein hartzaileri komunikatuko zaizkio zure datuak?

Jarraian adieraziko ditugun datuen komunikazioak legitimatuta daude bete behar ditugun legezko betebeharrak betetzeko.

Zehazki, honako datu-komunikazio hauek egiten ditugu:

- Azpeitiko Udala.

2.4 Kontabilitate-, ekonomia- eta zerga-kudeaketa

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Azpeitia Berritzen SA erakundearen kontabilitate, ekonomia eta zerga kudeaketa egiteko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA zure datuak tratatzeko legitimatzen duen legezko oinarria lege ezarritako legezko betebeharrak betetzea da.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira, baita Azpeitia Berritzen SAko datu-baseek emandakoak ere.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Enpleguaren xehetasunak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako hauek dira:

- Azpeitia Berritzen SAren enplegatutako pertsonak.

- Kontrataturako eta azpikontrataturako enpresetako langileak.

Zein hartzailei komunikatuko zaizkio zure datuak?

Tratamendu honen esparruan egiten diren datu-komunikazioek erakunde gisa legez esleituta ditugun legezko betebeharretan aurkitzen dute zilegitasuna.

Zehazki, honako hartzaileei komunikatuko dizkiegu zure datuak:

- Azpeitiko Udala.

2.5 Giza baliabideak

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Azpeitia Berritzen SA erakundeko langileen kudeaketa, kontratuen kudeaketa, langileen prestakuntza, ordutegi-kontrola, nominen kudeaketa, ezintasunagatiko baje izapidetzea, diziplina-prozedurak eta abar gauzatzeko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatze, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA elkarteak zure datuak tratatzeko legitimatzen duen lege-oinarria babestuta egongo da tratamendua egin behar denean kontratu edo aurrekontratu bat gauzatzeko edo perfektzionatzeko, edo lege ezarritako legeko betebeharrak betetzeko.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legeko ordezkariak emandakoak dira.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Ezaugarri pertsonalen datuak.
- Datu akademikoak eta profesionalak.
- Enpleguari buruzko xehetasunak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruari buruzkoak.

- Datuen kategoria bereziak: osasuna.

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako hauek dira:

- Azpeitia Berritzen SAren enplegatutako pertsonak.

Zein hartzailei komunikatuko zaizkio zure datuak?

Tratamendu honen esparruan egiten diren datu-komunikazioek erakunde gisa legez esleituta ditugun legezko betebeharretan aurkitzen dute zilegitasuna.

Zehazki, honako hartzaileei komunikatuko dizkiegu zure datuak:

- Gizarte Segurantzak.
- Zerga-administrazioa.
- Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateak.
- Lan-arriskuen prebentziorako erakundeak.
- Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.

2.6 Aholkularitza juridikoa eta erreklamazioen aurreko defentsa

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Azpeitia Berritzen SA parte den erreklamazio eta prozeduren izapideak, kudeaketa eta jarraipena egiteko tratatzen ditugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zure datu pertsonalak agiri-artxiboaren araudiaren arabera eta, hala badagokio, izapidetze-prozedura gauzatzeko eta tratamenduaren ondorioz sortu ahal diren erantzukizunen preskripzio epearekin bete ahal izateko behar den denboran gordeko dira.

Dagokion kasuetan, interes publikoaren izenean artxibatze, ikerketa zientifiko eta historikorako edo estatistikarako iraunkorki gorde ahal izango dira datuak.

Zein da zure datuak tratatzeko zilegitasuna?

Azpeitia Berritzen SA zure datuak tratatzeko legitimatzen duen legezko oinarria legezko betebeharrak betetzea da.

Nola eskuratu ditugu zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Tratatu beharreko datuen kategoriak honako hauek dira:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Bestelako datuak; prozedura zehatzetan bildu eta/edo emandakoak.

Era berean, datuen tratamenduan interesa duten pertsonak (interesdunen kategoriak) honako hauek dira:

- Eskatzaileak eta/edo horien legezko ordezkariak.

- Eragindako pertsonak eta/edo haien legezko ordezkariak.

Zein hartzailei komunikatuko zaizkio zure datuak?

Tratamendu honen esparruan egiten diren datu-komunikazioek erakunde gisa legez esleituta ditugun legezko betebeharretan aurkitzen dute zilegitasuna.

Zehazki, honako hartzaileei komunikatuko dizkiegu zure datuak:

- Justizia Administrazioa.
- Organo judizialak.
- Notarioak, abokatuak eta prokuradoreak.
- Erakunde aseguratzaileak.